

KAPAR BAT TXIO ARTEAN

Kaparrari Euskal Herrian ematen zaizkion izendapenen bilketa sareetan

Kurioso a, behintzat, bada istorio honen hasiera. Albaitaria eta biologoa, Bilbo zaharrean barrena, jardunaldi batzuetara bidean. Eta hasi dira, lur azpiko trena hartzeko sator-zuloan behera, berriketan. Eta hizketarako gaia atera da: kaparrak. Bilbo urbanoan, kaparrak mintzagai, aizue. Sugandilek kaparrak dituztela esan dio biologoak albaitariari. Albaitaria kaparretan aditua izan... Eta ohartu dira, batek “kapar”, besteak “akain”, badirela hainbat izen, eta galdera suertatu da: zenbat izen eta aldaera izango ote ditu (edo ote zituen) animalia honek euskaraz?

Eta hala, adierazi dio biologoak albaitariari berak egin izan duela horrelako probarik sare sozialetan. Twitterren, hain zuzen ere. Galdetu izan duela, esaterako, zapaburu baten argazkia jarrita halakorik: «Eta zuen herrian, nola deitzen diete adinekoek animalia honi?». 2019an izan zen, eta 31 izen ezberdin jaso omen zituen, bertako erabiltzaileek emanda. “Attonburuxka”, “amormuxkua”, “apaparrutxa”, “atxintapurrua”... Euskal Herriko hainbat herritan jasoa. Eta esperientzia ederra izan omen zen. Dena ez delako liskarra sare sozialetan.

Iritsi dira jardunaldiak egingo diren gunera. Kale grisetan barrena, eremu berdeak mintzagai. Eta erabaki dute, Bilbo-ko Zazpikaleetan, erdi-brometan, erdi-serio: «Gaur gauean kapar baten argazkia jarriko dugu Twitterren, ia zer pasatzen den. Ia inork erantzuten duen. Ia zenbat izen ateratzen zaizkigun». Eta jardunaldi-eta sartu dira. UEUK antolaturi-

 **BIOLOGIA** / Iñaki SANZ-AZKUE

«Herritarrek zientzian inplikatzeko» izena zuen UEUK Bilbon antolatutako jardunaldiak, eta ia ezustean kaparrari Euskal Herrian ematen zaizkion izendapen ugariak biltzeko galdeketa arrakastatsua antolatu zuten sare sozialetan bertara joandako albaitari batek eta biologo batek. Ezin adibide praktikoagorik imajinatu.

ko “Herritarrek zientzian inplikatzeko” jardunaldietara. Eta hor, biologoak honako hitzaldi hau eman du: “Herritarren zientzia eta sare sozialak”. El-karrizketak ez dira kasualitatez sortzen...

KAPARREK JAKINGO BALUTE

Esan eta egin. Egunean bertan, albaitariak argazkia lortu eta

kapar baten irudia igo dute sarrera: Twitterrera, zehazki. Kapar bat azalduko da txio artean. Eta galdetu diete bertako erabiltzaileei ia irudiko animaliak zein izen duen haien herrian. Ia inguruan dituzten adinekoei galdetzerik edukiko zuten. Hasi da erronka eta hasi dira erantzunak. Hasi da kapar-festa sare sozialetan. «Ez

Akainek odola behar dute elikatzeko eta beste animaliangandik lortzen dute elikagai hori.
Nieves GOMEZ

genuen halakorik espero, egia esan».

Dozenaka izan dira jasotako erantzunak. Eta asko jendeak emandako izenak: “kapar”, “akain”, “bakasta”, “lakrain”, “artapo”... Kaparrek eta giza-kiak mendeak daramatzate elkarrekin bizitzen. Azkenaldian, ordea, fama handitzen ari zaiela-eta, badirudi gehiago ikusarazi ditugula gizarte mailan. Eta agian, ez dugu pentsatu guk adina edo gehiago ezagutuko zituztela gure aurrekoek animalia txiki hauek. Euskal Herrian bai baititu hainbat izen kaparrak eta badago ezagutza, jakinduria, haiekin bizi izatetik atera dena eta gure hizkuntza ere aberastu duena, esamoldeekin eta hiztegi berezi batekin, besteak beste. Eta zein kurioa, ikus-tea kapar baten argazkiak sare sozialetan, euskaldunon artean, sortu dezakeela halako auzolan bat, elkarren artean ahalik eta izen gehien biltzeko, eta haien ezagutza partekatze-ko eta liskarretik kanpo, ekarpenak egiteko. Nork esango zuen, kapar baten argazkiak elkarlana bultzatuko zuela...

KAPARREZ DAKIGUNA

Esan dezagun aurretik (badaezpada) sare sozialetan eginiko saiakerak gehiago zuela zirikatsetik ikerketatik baino, eta gehiago izan dela ezagutza biltze txorroka bat, ezagutza biltze meta bat baino. Bere txikitasunean, ordea, badu meritua. Izan ere, biologoak eta albaitariak jardunaldietan entzun zuten moduan, herritarrek zientziara hurbiltzeko modu on bat izan daiteke herritarren parte-hartzea sustatzea, eta zein modu hoberik haiek ezagutzaren bilatzaile, biltzaile eta zabaltzaile egitea baino? Nork egingo zion, bes-





tela, kasu kaparrei buruzko txio bati? Zein aitzakia hartu, jendea erakarri eta kaparren ezagutza gizarteratzeko?

Erantzun dute Nafarroa Beheretik, Gipuzkoatik, Bizkaitik, Arabatik... Euskal Herriko izkina guztietatik. Gehienek, izen bakarra emanda, baina beste batzuek: «Gure herrian bi izen hartzen ditu». Eta ize-nak gora, izenak behera, etorri dira albaitariari interesa sortu dioten aipamenak.

«Gure etxean (Urola erdia) ‘akaña’ eta ‘bakasta’ hitzak bi ‘bitxo’ desberdinenez erabili izan ditugu». Eta albaitariak haien interesa erabili du sa-rean dibulgatzeko, eta ohartu dira animalia-fase ezberdi-nek izen ezberdina jasotzen dutela. Alegia, gutxi dakiten moduan, kaparrak larba fasea, ninfa fasea eta heldu fasea di-tuela, eta sare sozialetan, behin baino gehiagotan aipa-tzen dutela tamaina dela etxe-ko adinekoek jarritako izenak ezberdinak izatearen arrazoia. Alegia, animalia-fasearen arabera, izen ezberdina har-tzen duela kaparrak herri ba-tzuetan; edota izan daitekeela, tamaina handiko kaparraz hitz egiten dutenean, emeaz hitz

egitea. Izan ere, arrak zein emeak behar dute odola elika-tzeko, baina hala ere, emeak tamaina handiagoa hartzen du, eta odol kantitate handia-go behar du, arrautzak erru-teko.

Sarean ere esan dute, esate-rako, Usurbil inguruan “arta-pua” (ardi-apotik ote datorren, dio beste batek) deitzen zaiela ardiek dituzten txiki eta zapa-lei eta “akaña”, zakurrek dituz tenei. Eta noski, albaitariak ere izan du erantzuna horretara-ko. Izan ere, hainbat akain es-pezie daude Euskal Herrian eta batzuek ostalari ezberdi-nak dituzte gogoko. Ardiekiko joera duten bezala batzuek, beste batzuek, zakurrekikoa. Ez dira edozein odolekin kon-formatzen, itxuraz.

Herritarrak zientziara hurbiltzeko modu on bat izan daiteke parte-hartzea sustatzea, eta zein modu hoberik haiek ezagutzaren bilatzaile, biltzaile eta zabaltzaile egitea baino?

Euskal Herrian baditu hainbat izen kaparrak eta badago ezagutza, jakinduria, haiekin bizi izatetik atera dena eta gure hizkuntza ere hiztegi berezi batekin aberastu duena

Euskararen Herri Hizkeren Atlasak (EHHA) aldaera desberdinak jasotzeko lan bikaina egin zuen. EHHA

Eta hala, herritarren eran-tzun eta erantzun artean, hasi gara ikasten... hasi da albaita-ria animalia-fase zientzia eza-gutza gizarteratzen.

KAPARREI LOTURIKO HIZKUNTZA BAT
Sarean denok hitza emateko aukera dugula-eta, norbera-ren esperientziak ere loratu dira txio artean. Basora joan aurretik gorputza labanda olio-z igurzteko komeni dela, edota zakurrari agertzen zi-tzaizkiola asko, edota ardien-gatik ezagutzen zituztela ba-tez ere. Eta hala, hasi da kaparren mundua sare sozia-lean gailentzen, bat-batean bestea-ri erantzunez, edota Juan Kruz Lakastari gogoraraziz (etiketatuz) bere abizenak ere kapar esan nahi duela ipar-raldean (sekretu gutxi sare sozialetan...). Atera dira Jon eta Aitor Sarasuak kaparrari eskainitako bertsoak ere, eta iruzkinen harira ere hiztegi zaharren argazki eta aipame-nak, eta Herri Hizkeren Atla-sak horien aldaera ezberdi-nak biltzeko egin zuen lan bikainaren erreferentziak. Kaparrei buruzko bibliogra-fia, lagunok. Non eta... sare sozialetan.

Belaunaldiz belaunaldi, ka-parrekin izandako harrema-nak esamoldeak ere atera omen ditu. “Pertsona kapa-rra” pertsona astuna omen, esan dute Iruñean, eta gazte-leraz ere hala erabiltzen omen dute. Alegia, “*caparra*” moduan. “Arraio lakaina!” omen da jende erretxinaren-tzat erabiltzen dena. Edo “ka-parrie baino beteago zihoan” esaten omen zaio mozkor doanari Bizkai inguruko he-rri batzuetan. Izan ere, kapa-rra odola hartzen duen hei-nean joan ohi da handitzen eta betetzen. Baten batek iku-siko zuen mozkorraldiren bat non kaparra bezain beteta amaitu zuten...

Eta hala, esaldi eta aipame-nen artean, konturatu gabe bezala, txioak joan, txioak etorri, animalia “nazkagarri”, “txar” eta “txiki” bati buruz aritu da txiokatzen sarean, eta erabili dira aipamen horiek dibulgatzeko. Ezagutza zabal-tzeko. Esperimentu txiki ho-nek balio diezaguke, agian, ikusteko sareetan beste mo-duren batera sekula landuko ez litzatekeen gai bat lantze-ko jendearen parte-hartzea beharrezkoa dela. Izan ere,

kaparrak bere txokoa aurkitu du Twitterren. Txioak 17.800 ikuskapen izan ditu.

ALBAITARIAK KONTATUKO DIGUNA

Metroko sator-zuloan, eskaile-ra mekanikoetan behera doaz berriz albaitaria eta biologoa. Lyme gaixotasunaren zabal kundeak gizartean kaparrekiko kezka areagotu duela dirudi. Gero eta gehiago dira animalia honi buruzko aipamenak prentsan, eta larrialdi zerbitzuetan ere gero eta gehiago, kapar bat tek heldu dielako gerturatzen diren herritarrek. Ez da erraza jakitea kapar kopurua handitu den edo larrialdietara doan herritar kopurua igo den beldurraren ondorioz. Izua bai, baina animalia honi buruzko ezagutza ez da oso handia gizarte mailan. Gaixotasunaren transmisioaz eta odola hartzeaz haratago, ez asko, behintzat.

Gure albaitaria Aitor Cevidanes da. NEIKEReko ikertzailea eta eltxoetan eta kaparretan aditua. Aitorrek azalpenak ematen jarraitu du. «Kaparrak

ez dira intsektuak. Kaparrak armiarmen (araknidoen) taldekoak dira. Artropodoak, alegia. Helduak direnean, armiarmek bezala, lau hanka pare dituzte. Intsektuek, ordea, hiru pare».

Euskal Herrian 19 kapar espezie ditugula ere aipatu du, eta normalean, menditik bueltan gorputzean itsatsia ekartzen duguna espezie bera dela. Ixodes ricinus izenekoa, alegia. Landare ugariko guneak ditu gustuko; belar luzeko zelaiak, iratze lekuak, bai eta basopeak ere. Beti hezetasun nahikotxo dagoen eremuak. Eta guztiok dakigun moduan, odola eskuratzea dutenez helburu, landare horietan izaten dira zain, gu, edo beste edozein animalia, noiz pasako zain... Hori gutxi ez eta, badirudi klima aldaketak ere lagunduko diela kapar espezie berriei gurean leku egokiak aurkitzen.

SARE SOZIALEN ALDE ONA

Txioa sarera igo eta bi egun geroago oraindik ere erantzuten ari da jendea. Txioherriak elkarlanerako gogoa duela dirudi. Eta horrek berak bidea irekitzen

Ezkerreko irudian, arraren eta emearen arteko desberdintasuna: emea askoz handiagoa izaten da. Eskuinean, Twitterren jasotako erantzunekin egindako hitz-hodeia: gehien azaldu den izena agertzen da tamaina handienean, eta kopuru horren arabera daude jarriak beste izenen tamainak. NEIKER

dio jakin-minari. Agian, sekula gai horri buruz hitz egiteko hartuko ez luketen tarteak ireki zaialako bertan. Haien hizkuntzan, eta gainera, gai horri buruzko ekarpen bat egiteko edota jendearekin iritziak eta ezagutzak partekatzeak parada ere badutelako. Gizakia animalia soziala delako eta ondo bideratuta, agertzen duelako interesa.

Eta hala, azken urteetan martxan jarri dira jendearen parte-hartzea sustatzen duten hainbat ekimen Twitterren: #sugebizi, #orkideabila edota #polenbila, esaterako, une honetan bertan ere martxan direnak. Zientzia herritarra bultzatzeko eta dibulgatzeko. Baina izan dira tartean herritarren ezagutzarekin eta laguntzarekin osatu diren ikerketak ere. Hor da, adibidez, Josu Narbarte arkeologoaren kasua. Euskal Herriko serora-etxeen kokapenari buruzko galdera bota zuen duela hilabete batzuk sarean, eta sekulakoa izan zen orduan ere erantzuna. Hainbat herritarren serora-etxeen kokapena eta argazkiak jaso zituen orduan

eta mapa bat osatu, jendeak emandakoak gero sarean bertan erakusteko. Gauza bera esan behar da zapaburua izendatzeko izen ezberdinei edota sugandila izendatzekoei buruz galdetu zenean ere. Herritarren eta zientzialarien arteko gertutasuna eta elkarrekintza bultzatzen dira ekimen txiki hauen bidez.

Zazpikaleetako zaborra jasotzeko kamioi soinuek eta usoen hegaldi motzen artean doaz kaparrei buruzko hitzak airean. Sugandila bat kaparrekin aurkitzen duen hurrena, kaparra kendu eta berari bidaltzeko eskatu dio albaitariak biologoari. Eta nik, noski, baietz esan diot. Jasoko dudala. Bilboko inurritegiaren erdian, aurrera goaz. Horrenbeste jenderen artean egoteak ematen duen anonimotasun eta bakardadean murgilduta, elkarriketa sinple eta eroen alde egiten dugu. Hortik aterako direlako gero, agian, proiekturik ederrenak, eta noski, txioherria zirikatze balioko duten zientziari loturiko iruzkin zoroenak.

